




ZERUKO ALGIA

ILEROKO ALDIZKARI EDERGARIDUN AITA KAPUTXINOAK ZUZENDUA

14 Urtea 1932'ko Urila 166 Zenbakia

AURTZAROAREN EZIERA TA AITA SANTUA

III

(Jaiaipena)



Elizaren eskubideen zabaltasuna

skubide ontaz baliatzea, ezin artu izango da, bear ez-tenean sartzea bezala; baizik Elizak bere umeak edo-zein ikaspide ta egikera pozointsutatik gordetzeko ar-tzen dun, ama antzeko arduratzat.

Elizaren ernetasun onek ezeren egi-zko eragozpe-nik ez bai dezake sortu. Berealaxe sendiei (familiei) eta efietako lagunarteari ere, beren bizibiderako ta one-rako laguntza ekafi gabe eztezake utzi. Ofela gazte-diagandik urutitzen bai du, adin ain ez jakin eta alda-kofoan efaztxo sartu ta egitetan agertzen dan oituretako pozoin ura. «Erli-jiozko ta egite onezko erakusketa zuzenik gabe, animen edozein eziera osa-sun gabea izango da» Leon Amairugafenak dionez. «Jaungoikoaren begira-penez bizitzen oitu gabeko gazteak, itxura oneko bizibidearen legerik ezin eraman izango dute. Eta beren gogoari ezer ukatzeko kemenik gabe, efaz jafiko dira Efidiak (latefiak) nasteko nai dituztenen eskura.» (1)

(1) Ep. enc. Nobilissima Gallorum Gens.

Elizak ezierarako daukan eginbidearen zabaltasunari begiratzen ba'dio-gu, Kristo Gure Jaunaren aginduz, giza-odoleko guztiak afapatzen ditu: «Giza-ozte guziei erakutsi zaiozue.» (1) Eta eskubide ori lufeko agintari iñork, legez eztezake ezta-baidan jafi edo ezta galarazi ere. Lenik sinistendun (fededun) guzietara zabaltzen da. Oietaz amarik xamufenak bezala afe-ta bizia dauka.

Argatik ikas-gai edozeñetarako, eunki guzietan, ainbeste ikastetxe ta eskola sortu ta ugaritu izan ditu. Len ere, asko eztela, esan izan gendun bezala, «Erdi-aldi ufutiko garai artan ere, praiñe etxeak ain ugari ziran garai artan, (norbaitek ugariegi zirala esan nai izan du,) komentuak, elizak, apez-teriak, Eliz-nagusi ta ez-nagusiko Apaizteriak, etxe bakoitzaren ondoan beren ikastetxea ba-zuten; kristauari dagokion ikaspidea ta eziera emateko zan.

Aueri Ikastetxe-nagusi (universidadeak) erantsi bear zaizkie. Efialde guzietan Ikastetxe-nagusiak ba-ziran, eta beti Elizak eragin da goratuak eta Aita Santuaren eta Elizaren ardurapean. Orain gugandik urbilago dagoa-lako ta geiturik ikusten degulako, gure begiz ikusten ari gerañ ikuskari txo-ragafi ori, garai guzietako ikuskaria izaten zan. Eta egintzak ikasten eta alkafen auean jartzen ari diranak, afiturik gelditzen dira, Elizak gauza aue-tan zenbat egin izan zuan oarturik. Afiturik, efiak kristau ezieran oitzeko zeuken eginbidea nola bete zuan eta ainbeste zitu (frutu) ta ain gaitzak no-la iritxi zituan. Eta Elizak bere inguruan, garai guzietan eunka, milaka ta miloika ikasle bere eziera artzera bildu zituela ikusteak afitzen ba-gaitu, ez gaitu gutxiago afituko, ezieraren bafutian ez baño, ikaspide ta jakin-bide egiazkotan iritxi zuena ikusteak. Egia baita ba auferapenezko, bizibidezko ta idatzizko (literatura) ainbeste ondasun gorde ba-zaizkigu, Elizaren tente-tasunari zor zaizkiola. Garairik ufutien eta basatienetan, idaztietan, jakinbi-detan, eftietan eta batez ere etxe-egintzan alako argitasuna diztiratzen as-matu zuelako.» (2)

Elizak ofenbeste egin al izan du ta egiten asmatu du, bere ezierazko eginbidea siñiste gabetara ere zabaltzen dalako. Gizon guziak Jaungoikoa-ren jaurefian (efeinoan) sartzera ta betiko zoriona irixtera deituak bai-dira.

Gaurkoan dakusgun bezala bere misiotan, efialde ta latefi oraindak kris-tau ez diran guzietan, bere ikastetxeak milaka zabaltzen bai zitun. Ganges'en ertzetatik asi ta ibai Ori (Amarillo) ren saietsetaraño, Ozeano'ko ugarte ta ugarteagetan, Itsas beltzetik asi ta Suaren lufetaraño ta Alaska'ko lufalde koilduetaraño. Onela garai guzietan Elizak bere Misiolariaz, kristau bizi-eran eta lag inartekoan oraingo gizalde ezieraduna ezi izan du. Ainbeste abendatako gaurko kristau efialdeak, aietzek dira.


Onengatik agirian gelditzen da, eskubidez eta *izanez* ere, Elizari ezi-eraren eginbidea bereziro dagokiola. Eta lendikako iruditx txafik gabeko adimen bat bakafari, etzaiola bidezko izpiderik gogoratuko, Elizari esku-bide au ukatzeko edo galazteko. Gizalde osoak alako zitu (frutu) ondasun-tsuak eskubide oni eskefak bai-dauzka.

(1) Matth. XXVIII-19

(2) Afasateko Ikastetxeko ikasleen itzaldian, 1929'ko Ofilaren 14'ean.

Elizaren eskubideen ongietoñia Sendi (famili) ta Laterienarekin.

Elizaren eskubide gain-gañeko au gaizki ez baño oso ondo dator famili eta Latefi edo Estaduanarekin eta gizon bakoitzaren eskubideekin ere bai. Bakoitzak nai dun ikasgaiterako, jakintza bidetarako eta bestelako ikasketa edozeñetarako ematen dun aukera lasaiaz.



Dima (Bizkaia) Arg. Galará.

Eta ongietoñi ofen izpidea bertatik azaltzeko, izatez gañeko (sobrenatural) eskubide, Elizak dauzkan oien antzekoak, izatezkorik edo berezkorik ez bai dute txautzen, ezta gutxitzen ere. Baizik jaso ta ondu egiten bai dituzte. Eta bi bizibideak alkafi indafa eman egiten bai diote ta ortik bakoitzaren izateari ta bikaintasunari dagokion osotasuna.

Izatez ere bata ta bestea Jaungoikoagandik datozelako. Au ordea, bere esku batez egiña besteaz txautzen duena ez baita; «Jaungoikoaren egintzak oso onak dira eta bere bideak zuzenak.» (1)

Sendi edo familiak eta Latefiak ezieraz daukan eginkizuna ikusita, gauza bera argiago agertuko da.

Familiak

Lenengoz Elizaren ezierazko eginkizuna familiak daukan eginkizunarekin ederki dator. Biak Jaungoikoagandik oso era berdiñean bai datortz. Ofa ba, sendi edo familiari Jaungoikoak izatez sorpidea eman dio; bizitzaren sorpuru eta geroztik ezieraren asiera bera izan zedin. Ta ofekin batera, nagusitasuna ta zuzentasuna erakusteko.

Latefi edo estaduak baño aurreagoko eskubidea.

Irakasle Aingerutafak bere erako asmaketa argiz eta esakera zofotzaz dio. «Aragizko aitari dagokio batez ere asiera izatea, guziena Jaungoikoa

(1) Dent. XXXII-4.

ba'da ere... Sortzekoan, ezieran, eta zuzentzekoan eta bizibidea osotzeko bear diran guzietan, asiera aita da.» (1)

Eginkizun au, eta geroztik aurfak ezitzeko eskubidea, familiak bitartekorik gabe Egileagandik dakar. Eskubide aldatu eziña da, eginbide zofotzarekin batua dalako. Giza-alkartasunak eta Latefiak (Estaduak) izan dezaken eskubide guziak baño auferagokoa da; ta geroztik lufeko agintariak ezin ukitua.

Intza'r Damaso An.

Arosarioaren indara

Apaiz, Animezai batek diguna

Alain Agurgariak dio, apaiz oso on batek esan ziola: «Alguzia egin nuan, nere itzaldietan eta era guzietara, nere artaldeko ardiei Kristauaren ikasbidea erakutsi ta zeruko bideari joazteko. Asmatu nituan itzaldi eder eta bikañenak; baño auferapen gutxi ekusten zan.


Azkenean, itzaldi entzungafi aiek utzi ta, Arosario Santuaz asi nintzan itzegiten; zelai, zelai, erakutsi nien nola esan, eta gañera, nolako ontasunak etofi oi zaizkion bere bidez animari.

¡Afen, lenago au egin banu! Urte baten buruan, aurfeko ogei ta amar urtetan, itzaldi edefenaz baño anima geiago iribazi ditut.»

Nola esan arosarioa.—Bein batean, agertu zitzaion Ama Birjiña, Domingo A., Trebesko Kartujako erlijioso doneari, eta esan zion, Jesukristoren nekaldi eta atsegiñak gogoan irabiliz eta Jainkoaren grazian, arosarioa esaten duan edozeini, beren bekatuen ordaña, osoro barkatu egiten zaiola.

Mariak berak ere esan zion Alain doatsuari, naiz arosarioak barkamen (induljentzi) asko izan, Berak, askoz geiago emango dizkiela debozio ontan iraunkorak izaten diranai. Eta gero. «Ez afitu; Zeruak graziaz betea, oso eskuzabala naiz nere seme-alabentzat.»

A. I. M. A.



(1) S. Sh. 22. Q. C. II, a 1.



Asistar zauriduna-Donostiar Gabriel A'k egindako ol-lana.

GORUNTZ DIJOA...

(AMALAUKO)

Udazken-aro. A'rats-zoria...
 Eguzki-sua galur-ostean
 Geldizka daror itzal-aldean.
 Ilunabara. Otoitzaldia...
 Biotza sutan, sutan begia,
 Maitasun-gara zelai gañean
 Il-u'eren dakust; Asis-aurean

Il-u'eren Asis'taren Argia...
 Abes dagite la're-txoriak.
 Egaka orain enada alaiak.
 Urin-gañezka lili ioriak.
 Udazkena da. Otoitz-aroa.
 Kantari daude txori anaiak.
 Il da Asistara...; Goruntz dijoa!
 ZARAYA.

EZKONTZARI DAGOZKION ERABAKIAK



SPAÑA'ko Goigotzai eta Gotzaiak (Arzopispo ta Obispoak) sinisteari eutsi naiez, ezkontza katolikoari dagozkion erabaki batzuek eman dituzte. Eliz-legeak agintzen dunaren ariora berak erabakitako gauzak ementxe dituzte:

1.^a Eliza katolikoan bataiatuen artean, ezkontide bat bakafá ba'da ere bataiatua, ezkontza legezkoa ta ezertakoa (sendoa) izango da, eliz-legez, erágozpenik gabe, bere Gotzaiaren, Apaiz-aitaren edo auek ordeztako apaiz baten aurrean eta bi jakilekin (testigukin) egindakoa; Eliz-Legeen Araudian 1098- gáfen Can.'ean adierazia ezpalitz beintzat.

2.^a Araudi ontako 1063 - gáfen Can.'ean § 3 aginduaren 'ariora Latefiaren (Estaduaren) Ordezkoaren aurrean agertzea, eztago debekatua. Ezkontzaren ondasunaz jabetzeko legeak eskatzen dituan egitekoak betetzeko ba'da. Eta ezkontideen eta jaio bear duten auren onerako eliz-ezkontzaren ondoren bereala ori betetzea on da. Ala ere, katolikoak gogoan ar bezate, egintza ofek ezkondu-eran alkafeekin bizitzeko ta bizitza batean egoteko eskubiderik ez diela ematen, naiz efi-ezkontza edo ezkontza uts-utsik esaten ba-litzaio ere. Oientzat ori ez baita sakramentua, ezta ezkontza ezertakoa (sendoa) ere. Baizik ori giza-artearen ezkontzaren ondasunak lege jasotzeko eskatzen zaien beafezko gauza bat beste ezertxo ez dan ezkeró.

3.^a Geroztik gogozko oben lafia egingo luke kristau siñestunak, eliz-legez alkartasun ezerezatzt artzen dalako, efi-ezkontzari elduko ba'lio, gero ezerezutzeko asmotan. Ofela bidegabeko itxuraldia egin ezezik, bere ezkontidearen eta auren kaltetan zuzentasuna ausiko luke.

4.^a Erlijio katolikoan bataiatutako kristau iñori etzaio zilegi ezkontzako korapiñoa austeá. Ori bere izatez, ezkontza bete danean, betikoa ta ezin askatu dana baita.

5.^a Ezkontideen aldi bateko edo betiko bereiztaldia ere, bere Gotzaiaren baimenik gabe ezta zilegi, Eliz-Legeak aufetik adirazirik dauzkan aldietan ere. Naiz gauza auetan, naiz ezkontze ezerezaen bat adieraztekotan, edo ezkontza egiña, baño bete gabea ezeztutzeko, lan ori Elizaren auzitegiak egin bear dute, Eliz-Legeak agindurik daukan eran.

6.^a Naiz lengo zenbakian esana sendo ta tente gelditu, oarturik bereiztaldia elizaz emateko naiko izpide (afazoi) danean, katolikoak eskubidea ba-dutela, artatik giza-arterako datozen ondoretarako. Elizak siñestunei ez tie galaziko ondasun oiek efi-legez bilatzea. Giza-arteko ondasun oiek, nornai seguro egotea, lufeko ondasunetarako eta ezierarako, azierarako, eta auren onerako laguntzak dira. Baño ardura alik aundiena bear da, ofekin iñolaz eztedin nasi katolikoen esanari eusteko oztasunik, ezta eliz-aginduetan egoteko gogo gutxitzerik ere. Eta alegiña egin bear da, erlijioaren eta abefiaren onerako, ezkontzaren santutasunaren kalteztoko legeak kenduazteko, eta jainkoztoko legezt Elizak ditun eskubideak aintzat artuak izan ditezén.

Argatik eta siñestunei (fededunei) bi auziekin beta eta dirua galtzea le-

torkiela, geienean bezala egitekoz, Aita Santuak zerbait onen kaltetan erabakitzen ez duen arteko, bereizte utsaren auzia efiko auzitegieta era-
 ten uzten degu. Baño, aufetik beren Gotzaiaren baimena iritxi ezkerotzik.
 Onek ori ematerako galdebide labufaz ikasi bear du, elizaz bereizten uzteko
 naiko izpide bai al dan.

Nornairen eta bere ondasunen gorde beaf berezi ta zituak (urgente)
 itsumustuka erabaki beafa dakafenean, fededunak Gotzaiari ixilka adierazi
 egin bear diote. Onek berealako beafik gofiena estali ondoren, irudi zaion
 garaia jafi dezaioten, aufetik bear dan galdebide labuía egiteko.

Naiz efazbide ori zabalik utzi, gauza goragafi ta laudagafia egingo du-
 te efiaren onerako, ezkontzako ta etxeko ondasuna zaintzeko, eliz-legeak
 zein indar aundia duten ezaguturik, fededunen batzuek Elizaren Nagusitasu-
 nari begirapena ta menpetasuna bestela erakutsi nai ba'liote. Eta bereizte
 ustezko bi auziak efiko eta Elizako auzitegieta batera egingo ba'lituzte;
 eta obeki oraindik, al balitz, Elizaren erabakia efiko auziari jafaitzeko beren
 baiteko argi-emañe izatea. Gotzaiak beren aldetik siñistunei onelako egikera
 ikasgafi au efaztutzeko, alegiñak egingo dituzte. Eliz-auzitegian lanak alik
 ariñena egingo dirala itz-emanetz, eta auzien ordaindu beafak, nai duten eta
 dezaketen aiek bakafik ordaintzea ontzat emanetz.

(Bukaera urengoa)

Salvum me fac, Domine

(XI GAÑEN SALMOA)

*Begira nazazu, Jauna,
 akitu dira kirmenak (zintzoak)
 bakandu dira lufean
 egia maite dutenak.*

*Orok ari dira alkarñ
 esaten itz aroputzak;
 biotz tolestuz, gezuñez
 diardute ezpain malmutzak.*

*Idoki ta onda bitza
 Jaunak ezpain gezurtiak,
 erauzi bitza, aropuzki
 mintzo diran mi guziak.*

—«Altsua da gure mia,
 (esan baitiote elkari,)
 gere ezpañen jabe gera,
 nor diteke gure nausi?»

—«Lander txiroen zoritxar
 ta antziak dirala zio,

*bereala jaikiko naiz
 aien alde» Jaunak dio.*

*«Beren etsaien eskutik
 zainduko ditut landerak,
 purukatzen ditudala
 gertu zaizkien xederak.»*

*Garbi, kutsurik gabeak
 dira Jaunaren eleak (itzak),
 zazpitan suz garbitu dan
 zilara bezain garbiak.*

*Zuk begiratzen gaituzu,
 Jauna, zure gerizuan
 gizaldi tzar onengandik
 orain ta menden mendetan.*

*Gaizkiñak gure inguruan
 dabiltz gu galdu naiean,
 lufean gizatxaren bat
 nagusi dan bitartean.*

Iraizoz'ko Polikarpo A.

Tota Pulchra es Maria

Donosti'ar Jose And. Abak. ereskidetua.

Cantores

Chorus

Cantores

To-ta pulchra es Ma-rí-a! To-ta pulchra es Ma-rí-a! Et ma-cu-la

Musical score for the first system. It consists of three staves. The first staff is for Cantores, the second for Chorus, and the third for Cantores. The music is in G major (one sharp) and 4/4 time. The first staff begins with a piano (p) dynamic marking. The Chorus part is marked with a fermata. The Cantores part ends with a fermata.

Chorus

o - ri - gi - na - lis non est in te! Et má-cu-la o - ri - gi - na - lis non est intel

Musical score for the second system. It consists of two staves. The first staff is for Chorus, and the second for Chorus. The music is in G major (one sharp) and 4/4 time. The first staff begins with a fermata. The Chorus part ends with a fermata.

Cantores

Chorus

Cantores

Tu, glo-ri - a le - ru-sa-lem Tu, lae-ti - ti - a Is - ra-el! Tu, ho-nori-

Musical score for the third system. It consists of three staves. The first staff is for Cantores, the second for Chorus, and the third for Cantores. The music is in G major (one sharp) and 4/4 time. The first staff begins with a piano (p) dynamic marking. The Chorus part is marked with a fermata. The Cantores part ends with a fermata.

Cantores

Chorus

fi-cen-ti - a po-pu-li nos-tril! Tu, ad-vo-cá - ta pe-ca-tó-rum! O Ma - -

Musical score for the fourth system. It consists of three staves. The first staff is for Cantores, the second for Chorus, and the third for Cantores. The music is in G major (one sharp) and 4/4 time. The first staff begins with a piano (p) dynamic marking. The Chorus part is marked with a fermata. The Cantores part ends with a fermata.

Chorus Cantores Chorus

rí - - a! O Ma - rí - a! Virgo prudentissima! Mater clementissima!


Cantores Chorus

O-ra pro ño-bis, In-ter-ce-de pro no - bis a Dó-mino Iesum Chri - stum!

(EX CANTUALE ROMANO SERAPHICUM, 1929.)

Laudes in honorem Beatæ Virginis Immaculæ, quæ inde a sæc. XIV-XV, in pluribus Codicibus franciscanis inveniuntur. In Codice aliquo Gratianopoli anni 1402 vocatur *Tota pulcra del Botto.*

ASMAKIZUNA



Artzal ořek ba-du or bere ar-zakufa: topatu al ba'neza nik bere mutufa!

UZKURTZA EDO ERLIJIOA

(Gaztetxoentzat)

Jaungoiko-Gizona

Miraria.—Miraria Jaungoikoak munduan jafia dagon izanera edo ordenatik kanpora egindako egintza bat da. Esaterako, ur utsarekin ardoa egitea, ilak piztutzea.

Jaungoiko edo bere Bialduaren ezaungaria.—Au miraria da. Norbaitek *Jaungoiko* dala adierazteko mirari edo milagroa egiten ba'du, Jaungoiko da.

Norbaitek, Jaungoikoak *Uzkurtza edo Erljioa erakustera biali duala* adierazteko egiazko miraria egiten ba'du, Jaungoikoak bialdua da.

Zergatik?—Miraria Jaungoikoak bakafik egin dezake; gezufa erakusten duanari miraria egiteko indar ematea gezufa zabaltzen berari, apropos, laguntzea izango litzake: au ez dezake Jaungoikoak egin, ontasun guztiaren itufia, eta ofegatik onena da-ta.

Josu-Kisto (Jesukristo) gure Jaunak *Jaungoikoak Bialdua eta Jaungoiko* dala adierazteko mirariak egin ditu. Beraz Jaungoikoak bialdua eta Jaungoiko da.

Josu-Kisto'ren (Jesukristo'ren) Mirariak.—Josu-Kisto (Jesukristo) gure Jaunak egiazko *Uzkurtza edo Erljioa* erakustera Jaungoikoak biali zuala eta Jaungoiko zala adierazteko mirari asko egin zituan.

Itxuak sendatu, efenai, mainguai ibiliazi, legenardun edo lepradunai gaitza kendu eta ilak piztu ere bai. Elazar (Lazaro) il, usteltzen asi ta, esate utsaz piztu zuan.

Mirari oien Egia.—Mirari oien befi Ebanjelioak ematen digute. Oien egileak Matai (Mateo), Luka (Lukas), Marka (Markos) eta Jon (Juan) dira.

Auek eta gañerako Apostoluak Josu-Kisto (Jesukristo) gure Jaunagatik eta bere erakutsia zabaltzeko neke aundiak eraman zituzten: eta Jon (Juan) donea ez besteak, beragatik odola ixuri zuten.

Mirari aitatuak egiazkoak izan ez ba'lira, zer dala-ta eman izango zuten bere odola Josu-Kisto'rengatik (Jesukristo'rengatik)?

Mundu onetarako etzuten ezer irabazten eta *bizia galtzen zuten*: besterako etzuten ezer irabazten, esaten zuten gezur aundiagatik zigofada edo kastigu aundia merezi zuten-eta.

Zergatik Apostolu batek ere, bere bizia gordetzeko, etzuan mirari oiek gezuñezkoak zirala esan?

Beraz Josu-Kisto (Jesukristo) gure Jaunak Jaungoikoak bialdua eta Jaungoiko zala adierazteko egiaz mirariak egin zituan,


Oregatik Josu-Kisto (Jesukristo) gure launa egiazko Jaungoikoa da.

Arbelaitz.


Ikasi!... Ikasi!



1.—Aurtxo esnai, polita, zer nai duzu izan.
Zuk ere naiko duzu ondo jan ta edan?
Geroztik esan, aupa, zer nai zenukean?
—Nere osabagana, nai dut praile joan.



2.—Asmo zatafagorik! nori gogoratu?
Gaurkoan praile joan? Betiko alpertu?
Iñork eztezakizu ori ontzat artu.
Gizon alpefagorik luřak eztu sortu.



3.—Auxen ařigafia. Au nola liteke?
Prailia otoizka ta zu lotan ba'zaude?
Ura Misioka ta zu jokuan zaude:
Geroz ura da alpefa; zu beřiz langile!



4.—Bařan ni ez-jakin au, ez nintzen oartzen,
Nekea ari zaizula lepondoa metzen;
Nonbait buruaustek betondoa ubeltzen;
Ta aragi pitsik gabe gorputz guztia uzten.

AŘI!.. AŘI!..



Merizo'ko Dorea-Guam.

FILIPINETA'TIK

Euskaldunen Kaputxinoen lantegi berri bat

Orain bi urte, bi aita kaputxino, Napafoko semeak, beren senide mai-teak Manilan utzi-ta, an joan ziren trennez, Pangasinan deritzaion probintzira, bertako Obispo jaun Agurgafiaren Jauregira. Ze asmoak zebilzkiten Asisko Prantziskoren bi seme oiek? Ona!

Gauza jakina da, Filipinetan, orain ogeita amalauen-bat urte gertatua. Mila, zortzi eun ta 'larogei ta zortzian zan. Urte ori arte, Filipinetako Paroki guziak, españar praileak goratuak, españar ereligio-soak zituzten artzaikotzat. Eriko ta Elizako agintariak, adixkidetasun ederean elkarturik, arkitzen ziran ezkeroz, esatekorik ez dago, zein txukun eta garbi zeuden elizak alako prailen eskuetan; zein kristau zintzoak ziren filipindarak. Bañan esan dan urtean, matxinada ikaragarria asi zan españaren aurka; auek, apaizak eta guzi, al izan zuten guziak, ondatu egin ziran, ilko zituztelakon bildurez. Aldi ortan, bertako apaizak oso gutxi ziran; esatekorik ezdago geroz, nola gelditu ziran eriak: len lau edo bost apaiz zeuzkaten eriak, bat-bakarekin gelditu ziren; len bat, zeukatenak beriz, uts-utsik; eri batzuetan etzan gelditu, ez apaizik, ez elizarik, dena uratu zutelako.

Notzpait ere, Amarikarak ekari zuten pakea eta eman zituzten beren legeak; ordutik dabiltz Obispo Jaunak al-egiña egiten, utsanartekak betetzeko. Pangasinako probintziak jari beria du, orain daukan Apezpiku Jauna, Cesar Maria Guerrero deritzaiona; nai bezelako Obispoa, jakintsua eta santua.

Emengo apaiz-beartasuna ikaragarria da; orekatik gure Obispo jaunak lenengotik egin duan gauza da: Apezgaitegi (Seminario) berri bat iari; ala ere, Apeztegi ortako gazteak apaiz egin arte pasako dire urteak. Urte oiek igaro orduko beriz, zarak ilko dira, (egiz, apaiz batzuek, oso zarak dira). Geroz kanpora, apaiz eske atera bear, artaldea ondo zaintzekotan. Ora or zergatik deitu gaitun Obispo agurgari orek berari laguntzera; lendik bear-bearean arkitzen delako eta gero, egia esateko: Berak eta filipindar guziak, maite-maite gaituztelako. Kaputxinoen artean, orain arte, Jaunari eskerak, ezбайдute ba gauza ona baizik ikusi filipindarak!..

Pangasinan dago, bada, gure lantegi beria. Lau dira gaur-arte gure eskubide-pean dauden Parokiak; lau Paroki ogei ta amar milenbat biztanleekin. Lau Paroki eta iru artzai baizik ez; gutxixoa artaldea ondo zaintzeko; sei bearak gñake ondo ibiltzekotan. Kaputxinoak orde, gutxi geraldako edo, gutxi beintzat onerako.

(Bukaera urengoan)

Erasungo'go Fernando A.

O. M. Cap.

GUAM'DIK



INTZAR DAMASO A. A.

Iruñen

ere Aita maite eta biotzekoa: Poztu zaitez nerekin batean, zorionekoa naizelako...

Au edertasuna ikusi deguna egun auetan emen... Efi gutxitan ikusten dana ikusi degu geren begiz...

Guamgo efiari Jaungoikoak sinismen bizi bat eman dio eta sinismen ofen erotatik sortzen diran ondorio edefak agertzen dira orain...

San Joseren zazpi igandeak dirala ta, lan edefa egin da... Iru Aita afatsaldeko iruetan asi eta afatseko berderatziak arte eta geyago egon bear izaten zuten airtortegietan... Ori larunbata atsaldean...

Eta igande goizean befiz lanean ler egin arte... Ura edertasuna Gure Jauna artzen asten ziranean... Bi lagun ordu erdi bat bañan geyagoz Gure Jauna eman ta eman eta ezin bukatu... Pozgafi ez bañan txoragafiak izan dira San Joseren Zazpi igandeak...

Batez-beste zazpi igande oyetan bakafik 17.000 (amazazpi mila) Jauna-artze izan ditugu... Au poza gurea! nere Aita maite...

Eta oraindik gu ez trebe izaki airtortegian sartu eta lan ofetan laguntze-

ko!.. Bañan Jaungoikoak ala nai badu, eldudan urtean, ez amazazpi mila bakafik, baizik bai eta ogei mila gutxienez izateko itxaropena daukagu...

Misiolariak pozez beterik gelditu gera onelako edertasuna ikusi ta...

.

Bai'eta Aste Santuan egin ditugunak? Euskaleñian balitz bezela...

Aste Santuko elizkizunetara jendea ugari bildu zan... Eliza beti bete...

Batez ere Ostegun Santuan Gure Jauna bere aldarean jafi genuenetik... egun guztian eta bai eta gau guztian ere etzan gelditu...

Ura edertasuna gau guztian jendea Gure Jaunari ikusi-aldiak egitera etortzen.

Ba dire emen elizetan otoitzak egiteko autaturik dauden batzuek eta gayenean kantatzen ere ederki dakitenak izaten dira... Eta aiek buru zirala txandaka beren otoitzak egin eta abesti samufak kantatzen zituzten... Batzuek besteen atzetik ofela gau guztian goizeko elizkizunak asi arteraño...



AGAÑA—Guam'go uriburua.

Gaueko zortzietatik asi eta amabiek arte izan zan jendetza aundiena.

Gauerdien Gurutze Bidea leku bakoitzan bere kantua kantatuz... Eliza leporaño beterik eta dinak kantari... Negar egiñarazten ziguten alako sinismen bizia ikustean...

.

Ostiral Santuan, Jaungoikoak eman zigun egun bat edera...

Goiz goizetik alde batera eta bestera ba zebilen jendea afatsaldeko ibieran bear zituzten gauzak prestatzen...

Etxeetan bai daude Saindu eta Gurutze eta gure Jaunaren Gorputza eortziturik eta abar, berealaxen asi ziren elizera ekartzen...

Mundu guztiak ba daki egun ofetan eguraldiak laguntzen ba-du beintzat nola mugitzen dan jendea...

Eta ez uste izan Sandu oiek etxeetatik atera eta elizarakoan bakafik eldu dirala... Ez, noski... Egon dan etxeko aldamenen bizi diran geien-tsuak bere ondoan ekartzen ditu elizaraño... Nola ez lagundu elizaraño gure alde ainbeste egiten duten Sandu maiteak? esaten dute gure txamor'dafak.

Gaurko eguna iya guztia elizean egiten dute...

Goizeko elizkizunetan jendea... eliza bete bete...

Santuak elizara ekartzean befiz...

Eguerdian «Zazpi itzak»... Amabi-amabietan asten da elizkizun au eta ordu bata eta bai eta iya biak arte irauten du... Oien ondorean Gurutze bi-dea egiten bai dute iñoiz egiten ez dan bezela... Luze,-luze, dana kantuz txukundurik...

Pixka bat atsedean eta berealaxen afatsaldeko ibileran bear diran gauza mundu guztia prestatzen...

Bostak aldean, eguzkia pixka bat erori zanean, emen bero galanta egiten bai du, eliza eta eliz inguruak leporaño beterik... Ura jendeketa...

Bere ontakoak eta kanpotafak ere bai ezin konta al...

Aufez-aufe ba doa gurutzea, ibilaldiari asiera emanez...

Aurtxoak atzetik kanta eta kanta eta biziki gañera...

Geldi-geldi ateratzen da elizatik eta bi aldeetan sartzen da jendea...

Gizonak leenik... atera eta atera eta gu eliz-gizonak egon eta egon ordu iru ordu laurden bedere noiz aterako geran begira... Bitartean denak elizan kantari ortarako dauzkagun eliz kanta politak emengo izkeran...

Noizpait atera giñan... eta jura edertasuna!.. Afiturik zeuden gero esan zigutenez bidebaztefean begira zeudenak...

Igaro eta igaro eta beñere bukatzen etzala...

Ikusi zutenak esan digute ibilaldia luzeran kilometro terdi gutxienez ba zala eta bi lefoetan bai zijoan jendea eta gañera Santuekin ere bai zan sail edefa; batez-bestze jotzen degu ibilaldian sartuko zirala gutxi gora-bera iru mile eta zortziegunetatik lau miletara...

Eta danak kristau zintzoak bezela kantari eta otoitzak ere efi guztien aurfear egiten zituztela...

Nik uste Guamen arkitzen diran protestante guztiak, amerikafak beintzat, denak emen bildu zirala elizkizun au ikusteagatik...

Begira zegoen kanpotar jende talde edefa ba zan... Beste efietan ain bestelako gauzik ez bai da, beren automobiletan eta adixkideenetan eta kamioneta kaxkafetan (emen asko dira) amar, amabost lagun bildu eta Agañara etofi ziran asko ba ziran...

Giro gozoa afatsalde guztian... eta jendea pozik euririk egin etzuelako. Ain efaz da emen euria egitea...

Ostiral Santuko afatsaldea iñoiz izan dan edefena izandu da sinismena bizkortzeko... Protestanteen agintaria ere ikusi genuen bide baztefean gure kristauei begira...

Elizaratu giñanean, bide guztian bezela, eta biziago oraindik, azken abesti eder bat kantatu genuen...

Jaungoikoak gorde beza bizi-bizi emengo sinismena... bai dugu Jaungoikoaren bear aundia...

Berez ain arin eta aldako'fak bai diraeguzki sortaldeko gizonak, Misiolariak emendik atera eta bakafik geldituko ba'lira, azkar gero, basa-gizon egingo lirake orañik...

Aita Efoman Beratar kementsuak eraman du emengo lanik aundiena... Berak egin ditu itzaldiak, berak zuzendu du dena. Au langile bakafal..

Poztu zaite, Aita maite, onelako txoko politera Jaungoikoak bigali nauelako.

Añayozko Artzaña.

Guam'go Misiolariari.

Jaiean lanik ez egiteak iñork galdu?



LBANO Stoltz'ek onako gertaera ikasgafia dakar.

Dendari aberats eta kristau on bat, zapatari baten dendan igande batez sartu zan. Au egiñaletan lanean ari zan, naiz igandea izan.

Dendariak, alako egunean lanean ari zelako zapatari adiskideari gogor ekin zion. Ea Jaungoikoaren Legeko aginduaz ez al zitzaion axolik? Baño dendariak erantzun zion: «Eza naiz, eta igandean ere lana egiñez bizitzea beste biderik etzait gelditzen.»

Dendariak orduan: «Eza zera, Jai-egunak, agindurik dagon bezela, jai egiten ez dituzulako». Azkenean dendariak Jaungoikoagan berak zeukan us-te ona adierazteko esan zion: egiune (trato) auxe egitea nai al dezu? Zuk urte guzian igandean lanik eztezu egin bear. Igandetako lana galtzeagatik beste urtetan baño diru gutxiagokin arkitzen ba'zera urtearen buruan, nik órdainduko dizut ofengatik, naiz eun *eskudo*'tatik gora izan». Urtea bete zan bezin agudo, dendaria zapatalariagana joan zan eta esan zion: «Ea zenbat zor dizudan.»

Gizon gizagaxoak erantzun zion: «Ezta bikorik ere, ez didazu zor. Ontzufeko edefak irabazi ditut, eta beroiekin bei bat ere erosi dut. Egi utsa, Jai-eguna jai egiteak, bedeinkapenak besterik ez dizkitela ekafi.»

Liburu Santuetan etzaigu alpefik esaten: «Jaungoikoak zazpigafen eguna bedeinkatu egin zun.»

Egun au bear bezala gordetzen dutenentzat, zorionaren eguna da.

Ilaren 13' engunean Meza bat emango da
ZERUKO ARGIAREN idazle, irakurle, ta ongile
guztien alde, Antonio Santuaren aldarean.